



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi  
Sustapen Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Innovación  
y Promoción Económica

## JN. T. ARGIA

**PREMIE egitarauko aholkulari homologatua izateko eta izaera horri eusteko baldintzak araupetuko dituen prozeduraren proposamena**

## SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak 1995. urtean abiarazi zuen PREMIE egitaraua.

Horren bidez, kudeaketarako oinarriko sistemak eta sistema integratuak ezartzen laguntzeko egitarau orokorra eskaini zaie enpresa txikiei, euren lehiakortasuna areagotu ahal izateko.

Horretarako, E.F.Q.M. deritzon bikaintasunerako europar ereduan oinarrituriko metodologia garatu zen, Bizkaiko mikroenpresetan erabili ahal izateko berariaz prestatua.

Egitaraua behar bezala aplikatu ahal izateko, PREMIE metodologia eraginkortasunez erabiltzeko gai izango ziren pertsonak homologatu behar ziren.

Horregatik, PREMIE egitarauko aholkulari homologatua izateko eta izaera horri eusteko baldintzak bilduko zituen prozedura ezarri beharra zegoen.

2001eko urtarrilaren 24an 217/2001 Foru Araua eman zen eta beraren bidez zehaztu zen prozedura hori.

Hala ere, ia 4 urtez indarrean egon eta gero, egokitzat jo da prozedura hori berrikustea.

Horretarako, aldaketaren proposamena egin da eta PREMIEko aholkulariei banatu zaie.

Jaso diren iradokizunak aintzat harturik, bada, PREMIE egitarauko aholkulari homologatua izateko eta izaera horri eusteko baldintzak araupetzen dituen prozedura eguneratzea proposatu da.

Horregatik guztiagatik, zure esku jartzen dut hurrengo proposamena:

## ILMO SR.

**Propuesta de procedimiento que regula los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada del programa PREMIE**

## INTRODUCCION

El Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia puso en marcha en 1.995 el programa PREMIE.

A través de él se ofrece a las pequeñas empresas un programa global de apoyo para la implantación de sistemas integrados y básicos de gestión como medio para aumentar la competitividad.

Para ello ha desarrollado una metodología basada en el modelo europeo de excelencia, E.F.Q.M., especialmente diseñada para que sea de aplicación en las microempresas de Bizkaia.

La correcta aplicación del programa requiere la homologación de personas capaces de aplicar con eficacia la metodología PREMIE.

Por ello es preciso establecer un procedimiento que recoja los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada PREMIE.

Con fecha 24 de enero de 2001 se emitió la orden foral 217/2001 por la que quedo definido el referido procedimiento.

Sin embargo tras su vigencia durante casi 4 años se ha considerado oportuno revisar dicho procedimiento.

Para ello se ha elaborado una propuesta de modificación que se ha circulado entre el colectivo de consultores PREMIE.

Una vez atendidas las sugerencias recibidas se propone actualizar el procedimiento que regula los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada del programa PREMIE

Por lo expuesto, someto a V.I. la siguiente propuesta de



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi  
Sustapen Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Innovación  
y Promoción Económica

### **EBAZPENA**

1.- Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren urtarrilaren 24ko 217/2001 Foru Araua ezeztatzea; foru arau horren bitartez, PREMIE egitarauko aholkularia izateko eta izaera horri eusteko baldintzak araupetzen dituen prozedura ezarri da.

2.- Prozedura hori araupetuko duen arautegi berria onestea, foru arau honi batu zaiona, hiru eranskinekin batera.

3.- Honako foru araua eta beraren eranskinak BAO n argitaratzea. Argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean.

Hala ere, zuk zeuk ebatziko duzu.

Bilbon, 2005eko urtarrilaren 11an

### **RESOLUCION**

1.- Revocar la Orden Foral nº 217/2001 de 24 de enero del Departamento de Innovación y Promoción Económica por la que se establece el procedimiento que regula los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada del programa PREMIE

2.- Aprobar la nueva normativa que regulará dicho procedimiento incorporado a la presente Orden Foral junto con sus tres anexos.

3.- Publicar en el BOB la meritada Orden Foral y sus anexos que entrarán en vigor al día siguiente de su publicación.

V.I., no obstante, resolverá.

Bilbao, a 11 de enero de 2005

**JEFE DE LA SECCION DE DESARROLLO  
ECONOMICO/ EKONOMI GARAPENEO  
ATALEKO BURUA**

**Fdo./Sin.: Borja Lastra**

**VºBºO.E.  
DIRECTOR GENERAL DE PROMOCION  
ECONOMICA E  
INNOVACION/BERRIKUNTZA ETA  
EKONOMI SUSTAPENERAKO ZUZENDARI  
NAGUSIA**

**JEFE DEL SERVICIO DE INNOVACION/  
ERABERRIKETA ZERBITZUKO BURUA**

**Fdo./Sin.: Inazio Garmendia**

**Fdo./Sin.: Iñigo Atxutegi**

**ILMO SR. DIPUTADO FORAL DE INNOVACIÓN Y PROMOCION ECONOMICA  
/BERRIKUNTZA ETA EKONOMI SUSTAPEN SAILEKO FORU DIPUTATU JN. T.  
ARGIA.**

**RUTA: 6/11/00/2005/1**



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi  
Sustapen Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Innovación  
y Promoción Económica

**103/2005 FORU ARAUA, urtarrilaren 12koa, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailarena; beraren bitartez, PREMIE egitarauko aholkularia izateko eta izaera horri eusteko baldintzak araupetuko dituen prozedura ezarri da**

### SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak 1995. urtean abiarazi zuen PREMIE egitaraua.

Horren bidez, kudeaketarako oinarritzko sistemak eta sistema integratuak ezartzen laguntzeko egitarau orokorra eskaini zaie enpresa txikiei, euren lehiakortasuna areagotu ahal izateko.

Horretarako, E.F.Q.M. deritzon bikaintasunerako europar ereduan oinarrituriko metodologia garatu zen, Bizkaiko mikroenpresetan erabili ahal izateko berariaz prestatua.

Egitaraua behar bezala aplikatu ahal izateko, PREMIE metodologia eraginkortasunez erabiltzeko gai izango ziren pertsonak homologatu behar ziren.

Horregatik, PREMIE egitarauko aholkulari homologatua izateko eta izaera horri eusteko baldintzak bilduko zituen prozedura ezarri beharra zegoen.

2001eko urtarrilaren 24an 217/2001 Foru Araua eman zen eta beraren bidez zehaztu zen prozedura hori.

Hala ere, ia 4 urtez indarrean egon eta gero, egokitzat jo da prozedura hori berrikustea.

Horretarako, aldaketaren proposamena egin da eta PREMIEko aholkulariei banatu zaie.

Jaso diren iradokizunak aintzat harturik,

**ORDEN FORAL Nº 103/2005 de 12 de enero, del Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, por la que se establece el procedimiento que regula los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada del programa PREMIE**

### INTRODUCCION

El Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia puso en marcha en 1.995 el programa PREMIE.

A través de él se ofrece a las pequeñas empresas un programa global de apoyo para la implantación de sistemas integrados y básicos de gestión como medio para aumentar la competitividad.

Para ello ha desarrollado una metodología basada en el modelo europeo de excelencia, E.F.Q.M., especialmente diseñada para que sea de aplicación en las microempresas de Bizkaia.

La correcta aplicación del programa requiere la homologación de personas capaces de aplicar con eficacia la metodología PREMIE.

Por ello es preciso establecer un procedimiento que recoja los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada PREMIE.

Con fecha 24 de enero de 2001 se emitió la orden foral 217/2001 por la que quedo definido el referido procedimiento.

Sin embargo tras su vigencia durante casi 4 años se ha considerado oportuno revisar dicho procedimiento.

Para ello se ha elaborado una propuesta de modificación que se ha circulado entre el colectivo de consultores PREMIE.

Una vez atendidas las sugerencias



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi  
Sustapen Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Innovación  
y Promoción Económica

bada, PREMIE egitarauko aholkulari homologatua izateko eta izaera horri eusteko baldintzak araupetzen dituen prozedura eguneratzea proposatu da.

Hori dela bide, hauxe

**XEDATU DUT:**

1.- Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren urtarrilaren 24ko 217/2001 Foru Araua ezeztatzea; foru arau horren bitartez, PREMIE egitarauko aholkularia izateko eta izaera horri eusteko baldintzak araupetzen dituen prozedura ezarri da.

2.- Prozedura hori araupetuko duen arautegi berria onestea, foru arau honi batu zaiola, hiru eranskinekin batera.

3.- Honako foru araua eta beraren eranskinak BAOn argitaratzea. Argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean.

Bilbon emana, 2005eko urtarrilaren 12an.

recibidas se propone actualizar el procedimiento que regula los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada del programa PREMIE

Por ello:

**DISPONGO:**

1.- Revocar la orden foral nº 217/2001 de 24 de enero del Departamento de Innovación y Promoción Económica por la que se establece el procedimiento que regula los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada del programa PREMIE

2.- Aprobar la nueva normativa que regulará dicho procedimiento incorporado a la presente Orden Foral junto con sus tres anexos.

3.- Publicar en el BOB la meritada Orden Foral y sus anexos que entrarán en vigor al día siguiente de su publicación.

Dado en Bilbao a 12 de enero de 2005

**BERRIKUNTZA ETA EKONOMI SUSTAPEN SAILEKO FORU DIPUTATUA  
DIPUTADO FORAL DE INNOVACIÓN Y PROMOCION ECONOMICA**

**José Antonio Campos Granados**



**P.01. PREMIE EGITARAUKO  
AHOULKULARI HOMOLOGATUA  
IZATEKO ETA IZAERA HORRI  
EUSTEKO PROZEDURA (v.02)**

**1.-SARRERA**

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak 1995ean PREMIE egitaraua abiarazi zuen. Bizkaiko enpresa txiki eta ertainentzat eginiko egitaraua da; etengabeko hobekuntzarako kudeaketa-sistemen ezarpena errazten die, aholkulariaren laguntzaz.

Egitaraua behar bezala aplikatu ahal izateko, PREMIE metodologia eraginkortasunez erabiltzeko gai izango diren pertsonak homologatu beharra dago. Bidezkoa da, beraz, PREMIE egitarauko aholkulari homologatua izateko eta izaera horri eusteko baldintzak bilduko dituen prozedura ezartzea.

**2. XEDEA**

Prozedura honen xedea hauxe da: Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren PREMIE egitarauko aholkulari homologatuaren izaera **lortzeko** baldintzak eta mekanismoa zehaztea, bai eta izaera horri **eusteko** ebaluazio irizpideak ere.

PREMIEko aholkulari homologatutzat joko dira PREMIE egitarauko homologazio prozesua gainditu duten pertsona fisikoak, baldin eta, honako prozedura honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztelako, homologazioari eusten badiote.

**P.01. PROCEDIMIENTO PARA  
ADQUIRIR Y MANTENER LA  
CONDICIÓN DE PERSONA  
CONSULTORA HOMOLOGADA  
PREMIE (v.02)**

**1. INTRODUCCIÓN**

El Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia puso en marcha en 1.995 el programa PREMIE, un programa dirigido a las pequeñas y medianas empresas de Bizkaia que facilita, con la ayuda de una persona consultora, la implantación de sistemas de gestión orientados a la mejora continua.

La correcta aplicación del programa requiere la homologación de personas capaces de aplicar con eficacia la metodología PREMIE. Por ello procede establecer un procedimiento que recoja los requisitos para adquirir y mantener la condición de persona consultora homologada PREMIE.

**2. OBJETO**

El objeto del presente procedimiento es definir los requisitos y el mecanismo para **adquirir** la condición de persona consultora homologada del programa PREMIE del Departamento de Innovación Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, así como los criterios de evaluación para **mantener** dicha condición.

Se entiende como persona consultora homologada PREMIE a aquella persona física que tras haber superado con éxito el proceso de homologación del programa PREMIE mantiene dicha condición por cumplir los requisitos establecidos en el presente procedimiento.



Inork aholkulari homologatuaren izaera lor dezan, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saileko foru diputatuak hala izendatu behar du aldez aurretik, foru agindu baten bitartez.

Dicha condición se consigue tras la emisión de una Orden Foral del Diputado Foral del Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia reconociendo nominalmente a quien ostenta la condición de consultor homologado.

### **3. PREMIEKO AHOLKULARI HOMOLOGATUA IZATEKO BALDINTZAK**

PREMIEko aholkulari homologatuaren izaera **lortu** nahi dutenek aholkularitzako eginkizunak behar bezala egiteko baldintza tekniko eta profesionalak bildu behar dituzte.

Horrela bada, hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Gutxienez **6 urteko** lanbide esperientzia izatea aholkulari profesional gisa nahiz enpresa-zuzendari gisa.
- EFQM eredu **sakonean** ezagutzea.

### **4. ESKABIDEEN AURKEZPENA**

PREMIEko aholkulari homologatuak izan nahi duten aholkulari profesionalak Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren erregistroan agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, lehiaketa araupetuko duen foru agindua argitaratzen denean:

- Eskaera-orria, I. eranskineko ereduaren arabera egina.
- Curriculum vitae-a, aurreko atalean adierazitako nahitaezko baldintzak behar den moduan betetzen dituena, eta II.

### **3. REQUISITOS A CUMPLIR PARA ADQUIRIR LA CONDICIÓN DE PERSONA CONSULTORA HOMOLOGADA PREMIE**

La persona que desee **adquirir** la condición de consultor homologado PREMIE deberá reunir las condiciones técnicas y profesionales que permitan la adecuada realización de sus funciones.

Por ello tendrá que cumplir los siguientes requisitos:

- Experiencia profesional mínima de **6 años**, desarrollada bien como profesional consultor, bien como directivo de empresa.
- Conocimiento **en profundidad** del modelo EFQM.

### **4. PRESENTACION DE SOLICITUDES**

Los consultores profesionales que deseen ser homologados como consultores PREMIE, deberán presentar en el Registro del Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente documentación, cuando se publique la Orden Foral que regule el concurso correspondiente:

- Carta solicitud de acuerdo al modelo que se incluye en el Anexo I
- Curriculum Vitae, que dé cumplida respuesta a los requisitos obligatorios del apartado anterior, y de acuerdo



eranskineko ereduaren arabera egina. Curriculum vitae horrekin batera, azaldutako merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu behar dira.

- Lan-bizitza deritzon agiria, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emandakoa, edo horren baliokidea den agiria. Bertan agertu behar da zenbat denbora (urteak edota urte zatikiak) egin den lanean kudeaketaren arloko aditu gisa, eta bereziki EFQM ereduarekin zerikusia duten jardueretan.

#### **5. PREMIEKO AHOULKULARI GISA HOMOLOGATUKO DIREN PERTSONAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK**

PREMIEko aholkulari gisa homologatuko diren pertsonak hautatzerakoan kontuan hartuko da merezimenduen baremo hau:

##### **LANBIDE-ESPERIENTZIA**

Aholkulari profesional gisa edo enpresa-zuzendaritzan egindako lana:

- 25 puntu emango zaizkie 6 urteko esperientzia frogatzen dutenei.
- Hortik gorako urte bakoitzeko 5 puntu gehiago emango dira (gehienez ere 25 puntu gehiago).

(Merezimendu hau kalkulatzeko, kudeaketa arloko edo EFQM ereduaren arloko profesional aditu gisa egindako denbora hartuko da oinarritzat, lan-bizitzaren agirian edo agiri baliokidean agertzen den denbora, hain zuzen ere).

##### **EFQM ARLOKO JAKINTZA**

al modelo que se incluye en el Anexo II. Dicho Curriculum Vitae deberá ir acompañado de la documentación acreditativa de los méritos alegados.

- Vida laboral expedida por el INSS de la Seguridad Social, o documento equivalente que acredite los años, o fracción de los mismos, en ejercicio de la actividad como experto en materias de gestión, y en especial del modelo EFQM.

#### **5. CRITERIOS DE SELECCIÓN PARA LA HOMOLOGACIÓN COMO NUEVA PERSONA CONSULTORA PREMIE**

Con el fin de seleccionar las personas que serán homologados como consultores PREMIE, se tendrá en cuenta el siguiente baremo de méritos:

##### **EXPERIENCIA PROFESIONAL**

Ejercicio profesional como consultor profesional o directivo de empresa:

- 25 puntos por acreditar 6 años de experiencia.
- 5 puntos más por cada año adicional aportado (hasta un máximo de 25 puntos más).

(La base para calcular este mérito será el tiempo acreditado, como profesional experto en materias de gestión o EFQM, en el documento de vida laboral presentado o equivalente).

##### **CONOCIMIENTO EFQM**



# Bizkaiko Foru Aldundia      Diputación Foral de Bizkaia

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

Departamento de Innovación y Promoción Económica

EFQM ereduarekin zerikusia duten prestakuntza eta hobekuntza jarduerak eta kanpoko ebaluazioak hartuko dira aintzat, baldin eta azken 8 urteetan egindakoak badira.

- 10 puntu emango zaizkie, gehienez, EFQM eredu sakonean ezagutzen dutenei, hau da, ospe handiko zentroetan gai horri buruzko prestakuntza eta birziklapen ikastaroak egin dituztela frogatzen dutenei.
- 5 puntu gehiago emango dira enpresa desberdinetan egindako enpresa-ebaluazio bakoitzeko (gehienez 25 puntu gehiago).
- EUSKALITeko Ebaluatzaileen Klubeko senior kategoriako ebaluatzailea izateagatik edo EFQMko europar ebaluatzailea izateagatik: 15 puntu.

Eskabide guztiak jaso ondoren, BFAko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saileko Eraberriketa Zerbitzuak eskabideak ebaluatu egingo ditu eta ezarritako baremoaren arabera puntu gehien dituztenak hautatuko ditu. Aholkulari homologatuen zerrenda eguneratua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

PREMIEko aholkulari gisa lehenengoz homologatzen direnek nahitaez parte hartu beharko dute PREMIE egitarauaren metodologiari buruzko hasierako prestakuntza ikastaroan.

Sólo se computarán aquellas actividades de formación, perfeccionamiento y evaluaciones externas relacionados con EFQM realizados en los últimos 8 años.

- 10 puntos como máximo por acreditar conocer en profundidad el modelo EFQM en base a cursos de formación y reciclaje impartidos por centros de reconocido prestigio.
- 5 puntos más por cada evaluación de empresa distinta realizada (hasta un máximo de 25 puntos más).
- Categoría evaluador senior del Club de Evaluadores de EUSKALIT o evaluador europeo de EFQM: 15 puntos.

Una vez recibidas todas las solicitudes, el Servicio de Innovación del Departamento de Innovación y Promoción Económica de la DFB/BFA, evaluará las solicitudes y seleccionará aquellas que tengan un mayor número de puntos de acuerdo con el baremo establecido. Se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia la lista actualizada de los consultores homologados.

Las personas homologadas como consultoras PREMIE por primera vez deberán participar obligatoriamente en un curso de formación inicial en la metodología del programa PREMIE.



## **6. PREMIE HOMOLOGAZIOAREN INDARRALDIA**

PREMIE homologazioak bi urteko indarraldia izango du, egitarauari lehenengo aldiz atxikitzen zaizkion aholkularientzat.

Indarraldi hori amaitutakoan, homologaziora eutsi nahi diotenei **urtero** ebaluazioa egingo zaie, 8. atalean (ebaluazio irizpideak) ezarritako irizpideak betetzen dituzten ikusteko. Era berean urteroko ebaluazioaren irizpide hori aplikatuko zaie lehendik homologatuta dauden aholkulariei.

## **7. PREMIEKO AHOLKULARI HOMOLOGATUEN ESKUBIDEAK**

PREMIEko aholkulari homologatuaren izaera lortu eta berari eusten diotenei eskubide hauek izango dituzte:

- PREMIEko lan-metodologia eta horren egunerapenak eskura izatea.
- PREMIE kudeaketa-eredua behar bezala erabiltzeko hasierako informazioa jasotzea.
- Sailak antolatzen dituen prestakuntza eta birziklapen ekintzetan parte hartzea (derrigorrezkoa izango da, Eraberriketa Zerbitzuak bidezkoztat jotzen dituen salbuespenak salbu).
- PREMIEko sustapen materiala erabiltzea aholkularitza zerbitzuak eskaintzeko.
- PREMIE egitarauari loturik garatzen diren agirien definizioan eta berrikuspenean laguntzea.

## **6. PERIODO DE VALIDEZ DE LA HOMOLOGACIÓN PREMIE**

La homologación PREMIE tendrá una validez inicial de dos años para los consultores que se incorporen por vez primera al programa.

A partir de ese momento, el mantenimiento de dicha condición se evaluará **anualmente** para determinar el cumplimiento de los criterios establecidos en el apartado 8, criterios de evaluación. Este criterio de evaluación anual se aplicará así mismo a aquellos consultores que estuvieran ya homologados.

## **7. DERECHOS DE LOS CONSULTORES HOMOLOGADOS PREMIE**

La adquisición y mantenimiento de la condición de consultor homologado PREMIE generará los siguientes derechos:

- Disponer de la metodología de trabajo PREMIE así como de sus correspondientes actualizaciones.
- Recibir formación específica inicial para la correcta aplicación del Modelo de gestión PREMIE.
- Asistencia con carácter obligatorio a las acciones formativas y de reciclaje que se organicen desde el Departamento, sin perjuicio de las excepciones debidamente justificadas que estime el Servicio de Innovación.
- Uso del material promocional PREMIE para ofertar servicios de asesoramiento.
- Colaborar en la definición y revisión de los documentos que se desarrollen relacionados con el programa PREMIE.



- PREMIE egitarauaren web orrian eskura jarriko zaizkien agiriak eta tresnak erabiltzea.

## **8. PREMIEKO AHOULKULARI HOMOLOGATUA IZATEN JARRAITZEKO EBALUAZIOA**

PREMIE egitarauko aholkulari homologatu izaten **jarraitu** nahi dutenei, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak urtero ebaluazio-irizpide hauek aplikatuko dizkie:

1.- Hirugarren eranskinean (“**PREMIEko aholkularien jokaera kodea**”) ezarritakoa betetzea.

2.- PREMIE egitarauaren esparruan kalitate handiko lanak egitea. Honela neurtuko da kalitatea:

- Enpresei aholkulariaren lanarekin pozik dauden galdetuko zaie, bai auditorietan bai Sailak egingo dituen bisita edo inkestetan.

Enpresak aholkulariari emandako batez besteko puntuazioa “6”tik gorakoa izan beharko da (gehienez “10” izan daiteke). Puntuazioa “5”etik beherakoa bada, Sailak azterketa zehatza egingo du, aholkulariak zergatik izan duen puntuazio txikia eta homologazioa kendu behar zaion ala ez argitzeko.

- Egitarauan aurkezten diren agiriak kalitate onekoak diren begiratu da: bai kudeaketari buruzko eskuliburuak, bai ebaluazio gidak eta jarraipen txostenak.

Enpresa bakoitzak aurkeztutako agiriak baloratuko dira eta dokumentazioa ondoen egiten duten enpresen aholkulariak nortzuk diren begiratu da, baita agiri osatugabeak edo kalitate txarrekoak

- Uso de los documentos y herramientas puestas a su disposición en la página web del programa PREMIE.

## **8. EVALUACIÓN PARA MANTENER LA CONDICIÓN DE PERSONA CONSULTORA HOMOLOGADA PREMIE**

Para **mantener** la condición de persona consultora homologada en el programa PREMIE el Departamento de Innovación y Promoción Económica aplicará los siguientes criterios de evaluación anualmente:

1.- Cumplir lo establecido en el Anexo 3, “**Código de conducta de los consultores de PREMIE**”.

2.- Mantener un alto nivel de calidad en los trabajos desarrollados en el ámbito del programa PREMIE. Ello se medirá en base a:

- El nivel de satisfacción manifestado por las empresas con el consultor, recogido tanto en las auditorías como en las visitas o encuestas realizadas por el Departamento.

La puntuación media del consultor deberá ser superior a “6” sobre “10”. Toda puntuación que se obtenga inferior a “5” será estudiada en detalle desde el Departamento para analizar la causa de la baja puntuación y estudiar si es causa de deshomologación.

- La calidad de la documentación presentada al programa, tanto los manuales de gestión que se entreguen, como las guías de evaluación e informes de seguimiento.

Se valorará la documentación entregada por cada empresa e identificarán a aquellos consultores cuyas empresas mejor entregan la documentación así como a aquellos cuyas empresas sistemáticamente



aurkeztu ohi dituzten enpresen aholkulariak ere.

- Aholkulari bakoitzak aholkatzen dituen enpresetatik zenbat aurkezten diren PREMIE auditoria egiteko eta zenbatek gainditzen duten auditoria hori.

Helburua: aholkulari bakoitzak aholkatzen dituen enpresen %50ek gainditu behar dute PREMIE auditoria, edo bestela Saileko teknikarien balorazioa.

Enpresaren bat auditoria egiteko aurkezten ez denean, aholkulariak horren arrazoiak azaldu beharko dizkio Sailari eta horrelakoetan Sailak ordezkio balorazioa egingo du, enpresak aurkeztutako agiriak aztertuz eta enpresako arduradunekin elkarriketa eginez (edo enpresara bisita eginez).

### 3.- PREMIE egitaraua **urtero enpresa batean ezartzea gutxienez.**

Baldintza horiek betetzen ez dituztenek PREMIEko aholkulari homologatu izateari utziko diote.

Aurrekoa gorabehera, Sailak, aholkulari homologatuei izaera hori kendu aurretik, kasuak banan-banan aztertuko ditu, ondoko alderdi hauek kontuan hartuta:

- Aholkulariak PREMIE egitarauan egin duen **ibilbidea** (ezarpenen kopurua, sendoketak, PREMIE diploma lortu duten enpresak, etab.)
- PREMIE egitarauko prozesuen, metodologiaren eta materialen **hobekuntzan izandako parte-hartzea**: gonbidatu duten lantaldeei egin dizkien ekarpen

entregan la documentación incompleta o falta de calidad.

- El porcentaje de empresas asesoradas por cada consultor que se presenten y superen la auditoría PREMIE.

Objetivo: el 50% de las empresas asesoradas por un consultor deberán bien superar la auditoría PREMIE o bien una valoración por parte de técnicos del Departamento.

Cuando una empresa no se presenta a la auditoría el consultor deberá informar al Departamento los motivos y en esos casos será el Departamento quien haga una valoración alternativa basándose en la documentación aportada por la empresa así como una entrevista (o visita) con la empresa en cuestión.

### 3.- Implantar PREMIE en **al menos una empresa nueva cada año.**

El incumplimiento de estos requisitos producirá la pérdida de la condición de persona consultora homologada PREMIE.

No obstante lo anterior, el Departamento antes de proceder a retirar la condición de consultor homologado estudiará cada caso en particular, teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

- La **trayectoria del consultor** en el programa PREMIE (número de implantaciones, consolidaciones, empresas con el Diploma PREMIE, etc.) y
- **su implicación en la mejora** de los procesos, metodología y materiales del programa PREMIE, a través de sus aportaciones de valor en la



baliagarriak, etab.

Sailak zilegi izango du aurreko atal horietan bereziki nabarmendutako pertsonak aholkulari homologatu izaten jarrai dezaten erabakitzea.

### **9. ALDI BEREAN ZENBAT ENPRESA AHOLKATU DAITEZKEEN GEHIENEZ**

Egiten diren lanen kalitate maila egokia eta aholkularien gertutasun nahikoa bermatuta egon daitezten, gehienez ere **10** izango dira aholkulari batek aldi berean landu ditzakeen aplikazioak, PREMIE egitarauaren metodologia ezartzen diharduenean (kontuan hartuta bai ezarpen faseak eta bai sendoketa faseak).

### **10. PREMIEKO AHOLKULARIEI ESKER ONA ADIERAZTEA**

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak honako ekintza hauek egingo ditu ebaluazio bikaina lortzen duten aholkulariei esker ona adierazteko:

- Sari berezia ematea PREMIE diplomak banatzeko urtero egiten den ekitaldian
- Lehentasunez aholkulari horiengana jotzea material osagarriak garatzeko, zabalkunde edo birziklapen hitzaldiak egiteko etab.

### **11. PREMIEKO AHOLKULARIEN BIRZIKLAPENA**

PREMIE egitarauaren osagaien berrikuspenaren, mantentzearen eta

participación en los grupos de trabajo a los que se le haya invitado, etc.

El Departamento podrá mantener la condición de persona consultora homologada a aquellas personas que hayan destacado especialmente en lo recogido en los apartados anteriores.

### **9. LÍMITE DE EMPRESAS A ASESORAR SIMULTÁNEAMENTE**

Para garantizar un adecuado nivel de calidad de los trabajos desarrollados y un suficiente grado de disponibilidad de los consultores se establece en **10** el límite de aplicaciones que un consultor puede trabajar simultáneamente implantando la metodología del programa PREMIE (contabilizando tanto las fases de implantación como las de consolidación).

### **10. RECONOCIMIENTO CONSULTORES PREMIE**

El Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, realizará las siguientes acciones de reconocimiento con aquellos consultores cuya evaluación haya sido excelente:

- Concesión de una distinción especial en la entrega anual de los Diplomas PREMIE
- Se contará preferentemente con estos consultores, para el desarrollo de materiales adicionales, charlas de difusión o reciclaje, etc.

### **11. RECICLAJE CONSULTORES PREMIE**

Cuando a juicio del Departamento de Innovación y Promoción Económica de



eguneratzearen ondorioz aldaketa garrantzitsuak gertatzen badira, PREMIE metodologiaren arloko aholkulariei eragiten dietenak, orduan Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak, beharrezkotzat jotzen badu, PREMIEko aholkulariei dei egingo die jardunaldi batzuetara joateko eta aldaketen nondik norakoak azalduko dizkie. Jardunaldi horietara nahitaez joan beharko da PREMIEko aholkularia izaten jarraitzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia, se produzcan cambios importantes que afecten a los consultores en la metodología PREMIE consecuencia de la revisión, mantenimiento y actualización de los elementos del programa, se convocará a los consultores PREMIE a jornadas en las cuales se explicarán dichos cambios. La asistencia a las referidas jornadas será obligatoria para continuar siendo consultor PREMIE.

## 12. XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru agindu hau argitaratzen den egunean aholkulari homologatuak diren pertsonak hala izaten jarraituko dute, baina honako prozedura honetan ezarritako urteroko berrikuspenak egin beharko dituzte eta bertan ezarritako araubidea bete beharko dute, batez ere Jokaera Kodea.

## 12. DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las personas que ostentaren la cualidad de consultor homologado a la fecha de la publicación de la presente Orden Foral la seguirán ostentando sin perjuicio de las revisiones anuales establecidas en el presente procedimiento y del cumplimiento del regimen previsto en el mismo, en particular el Código de Conducta.

## 13. ANEXOS

- I. eranskina: **“Eskabidearen eredua”**
- II. eranskina: **“Curriculum vitae-aren eredua”**
- III. eranskina **“PREMIEko aholkularien jokaera kodea”**

## 13. ANEXOS

- Anexo I: **“Modelo de solicitud”**
- Anexo II: **“Modelo de Curriculum Vitae”**
- Anexo III: **“Código de conducta de los consultores de PREMIE”**



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi  
Sustapen Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Innovación  
y Promoción Económica

### I. ERANSKINA

#### BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZA ETA EKONOMI SUSTAPEN SAILAREN PREMIE EGITARAUKO HOMOLOGAZIOAREN ESKABIDEA

Izena: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

NAN zenbakia: \_\_\_\_\_,

aholkularitza-enpresa:

\_\_\_\_\_, IFZ:

\_\_\_\_\_,

jakinarazpenetarako helbidearen herria:

\_\_\_\_\_, kalea:

\_\_\_\_\_, zk.: \_\_\_\_\_,

posta kodea: \_\_\_\_\_,

telefonoa: \_\_\_\_\_,

faxa: \_\_\_\_\_,

helbide elektronikoa:

\_\_\_\_\_

#### HAUXE ADIERAZTEN DUT

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren PREMIE egitarauko aholkulariak homologatzeko lehiaketarako egin den deialdia ikusita, bertan ezarri diren baldintza guztiak betetzen ditudala uste dut eta deialdiaren alderdi guztiak onartzen ditut

#### HAUXE ESKATZEN DUT:

Onar nazatela PREMIE egitarauko aholkulariak homologatzeko lehiaketan parte hartzeko, 103/2005 eta xxx/2005 foru aginduetan ezarritako baldintza eta konpromisoei loturik.

Honekin batera behean adierazitako agiriak aurkeztu ditut eta horietan dauden datu guztiak egiazkoak direla adierazten dut

\_\_\_\_\_(e)n, 200\_\_(e)ko  
\_\_\_\_aren \_\_\_\_(e)(a)n

Sin. \_\_\_\_\_

#### Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak

1. Curriculum vitae-a (aipaturiko foru aginduaren II. eranskinean adierazitako irizpideen arabera egituratuta).

2. Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitza agiria, edo horren baliokide den agiria

### ANEXO 1

#### SOLICITUD DE HOMOLOGACIÓN DEL PROGRAMA PREMIE DEL DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN Y PROMOCIÓN ECONÓMICA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

Don/Doña \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

con número de D.N.I. \_\_\_\_\_,

pertenciente a la consultoría

\_\_\_\_\_, con N.I.F

\_\_\_\_\_ y con domicilio a efectos de

notificaciones en \_\_\_\_\_ calle

\_\_\_\_\_,

nº \_\_\_\_\_, código postal \_\_\_\_\_, teléfono

\_\_\_\_\_,

fax \_\_\_\_\_, y

e-mail

\_\_\_\_\_

#### EXPONE

Que, a la vista del concurso convocado para la homologación de consultores del programa PREMIE del Departamento de Innovación y Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, considerando reunir los requisitos exigidos y con la expresa aceptación de todos los términos de la citada convocatoria,

#### SOLICITA

Tomar parte en el concurso de homologación como consultor del programa PREMIE de acuerdo con las condiciones y compromisos establecidos en las Ordenes Forales nº 103/2005 y nº xxx /2005.

Adjunto se incluye la documentación abajo señalada, respecto de la cual declara ser ciertos todos los datos que figuran en ella.

En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_ de  
\_\_\_\_\_ de 2.00\_\_

Fdo. \_\_\_\_\_

#### Documentación a aportar junto con la solicitud:

1. Curriculum-vitae (estructurado según los criterios definidos en el anexo II de la citada Orden Foral)

2. Vida laboral de la Seguridad Social o documento equivalente



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi  
Sustapen Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Innovación  
y Promoción Económica

## II. ERANSKINA

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZA  
ETA EKONOMI SUSTAPEN SAILAREN  
PREMIE EGITARAUKO HOMOLOGAZIORAKO  
CURRICULUM VITAE-AREN EREDUA**

### IDENTIFIKAZIO DATUAK

IZENA:

\_\_\_\_\_

NAN.:

\_\_\_\_\_

ENPRESA:

\_\_\_\_\_

HELBIDEA:

\_\_\_\_\_

TELEFONOA:

\_\_\_\_\_

FAXA:

\_\_\_\_\_

E-MAIL:

\_\_\_\_\_

### **PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA**

**EFQM ARLOKO PRESTAKUNTZA (Euskaliteko ebaluatzaileen klubeko senior kategoriako ebaluatzailea edo EFQMko europar ebaluatzailea da?)**

**LANBIDE-ESPERIENTZIA  
ZUZENDARITZAN**

**ENPRESA-**

**LANBIDE-ESPERIENTZIA AHOLKULARI GISA**

**EFQM EREDUAREN ARABERA EBALUATU  
DITUEN ENPRESAK**

**BESTE MEREZIMENDU BATZUK**

## ANEXO II

**MODELO DE CURRICULUM VITAE PARA EL  
PROGRAMA PREMIE DEL DEPARTAMENTO  
DE INNOVACIÓN Y PROMOCIÓN  
ECONÓMICA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE  
BIZKAIA**

### DATOS IDENTIFICATIVOS

Dº/Dª:

\_\_\_\_\_

D.N.I.:

\_\_\_\_\_

EMPRESA:

\_\_\_\_\_

DIRECCIÓN:

\_\_\_\_\_

TELÉFONO:

\_\_\_\_\_

FAX:

\_\_\_\_\_

E-MAIL:

\_\_\_\_\_

### **FORMACIÓN ACADEMICA**

**FORMACIÓN EN EFQM (¿Es evaluador senior del club de evaluadores de Euskalit o evaluador europeo de EFQM?)**

**EXPERIENCIA PROFESIONAL COMO  
DIRECTIVO DE EMPRESA**

**EXPERIENCIA PROFESIONAL COMO  
CONSULTOR**

**EMPRESAS QUE HA EVALUADO SEGÚN EL  
MODELO EFQM**

**OTROS MÉRITOS ALEGADOS**



### **III. ERANSKINA: PREMIE-KO AHOLKULARIEN JOKAERA KODEA<sup>1</sup>**

PREMIEko aholkulariek jokaera kode hau betetzeko konpromisoa hartu behar dute.

#### **BEZEROEI DAGOKIENEZ:**

#### **BEZEROARI EGITEN ZAION SALMENTAREN EGOKITASUNA**

Aholkulariak, bezeroarekin lankidetzahitzarmena sinatu aurretik, egitaraua enpresan ezartzearen egokitasuna ebaluatu beharko du. Hau da,

- Egiaztatu egingo du enpresak gutxieneko baldintzak betetzen dituela (kudeatzailearen inplikazioa egitarauari buruz, enpresa mota, enpresak egitaraua aprobetxatzeko dituen aukerak, etab.)
- Egiaztatu egingo du egitaraua enpresarentzat beharrezkoa eta egokia dela.
- Egitarauari atxikitzeko zer nolako ahalegina egin beharko den jakinaraziko dio kudeatzaileari.
- Enpresak interes berezia agertzen badu ISO 9000 motako sistemaren bat ezartzeko, aholkulariak argi adieraziko dio egitarauaren helburua ez dela ziurtagiri hori lortzea, eta bi sistemen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak azalduko dizkio, salmenta prozesuko informazioaren gardentasuna areagotzeko.

#### **LANKIDETZA-HITZARMENA**

Bezeroarekiko harremana lankidetzahitzarmenean formalizatuko da. Hitzarmen

### **ANEXO III: CÓDIGO DE CONDUCTA DE LOS CONSULTORES DE PREMIE<sup>2</sup>**

Los consultores PREMIE se comprometen a respetar lo establecido en este código de conducta.

#### **RESPECTO A LOS CLIENTES:**

#### **IDONEIDAD DE LA VENTA AL CLIENTE**

Los consultores antes de firmar un acuerdo de colaboración con el Cliente, deberá evaluar la idoneidad de la implantación del programa en la empresa. Esto es, que:

- La empresa cumple unos requisitos mínimos (implicación del gerente con el programa, tipo de empresa, posible aprovechamiento de la empresa del programa, etc.)
- Es el producto requerido y adecuado para la empresa.
- Se explica al gerente el esfuerzo necesario para su adhesión al programa.
- Cuando la empresa muestre especial interés por implantar sistemas tipo ISO 9000 se manifestará claramente que el objetivo del programa no es la obtención de dicho certificado y se matizarán las similitudes y diferencias para fomentar la transparencia informativa en el proceso de venta.

#### **ACUERDO DE COLABORACIÓN**

El acuerdo de colaboración que formalice la relación con el Cliente deberá recoger

<sup>1</sup> Aholkularitza Enpresen Elkarteak (AEC) herri administrazioentzako aholkularitza jardueretarako egindako Kodean oinarritua

<sup>2</sup> Basado en el Código de la actividad de consultoría para las administraciones públicas de la AEC (Asociación de Empresas de Consultoría)



horretan argi eta garbi azaldu behar dira ondokoak:

- Lankidetzaren helburua eta eragina.
- Lan-egitaraua. Bertan mugarrak definituko dira eta gutxi gorabeherako burutzapen epea ezarriko da. Ebaluazio gida erabiliko da lan-egitarauaren diseinuan. Kudeaketa sistemaren diagnostikoa egingo da eta PREMIE metodologiaren moduluak enpresa bakoitzaren beharrezan egokituko zaizkie, modulu guztien ezarpen homogeneoa lortzeko.
- Aurrekontua (zerbitzuengatik ordainsariez gainera, bezeroari fakturatu ahal zaizkion beste gastu guztiak jasoko dira).
- Lantaldea definituko da. Aholkulari homologatuaren ordeza, bera bezala homologatuta dauden pertsonak jardun ahal izango dute bakar-bakarrik.

### **ELKARRENGANAKO KONFIDANTZA**

- Bezeroak zein aholkulariak elkarlana eta lankidetzaren sustatuko dituzte. Horrela biek ahalik eta onura gehien aterako diote elkarren arteko harremanari. Horretarako, lantalde bakarrean egingo dute lana, eta bakoitzak bere esku dituen jakintza, esperientzia, baliabideak eta informazioa eskainiko ditu proiektua gauzatu ahal izateko.
- Bezeroaren eta aholkulariaren arteko harremanetan informazio trukea erabat gardena izango da:
  - Aholkulariak, proiektuaren hasieratik, bermatu egingo du bezeroaren izenean diharduten solaskideek proiektuaren berri zehatza jasoko dutela (helburuak, eragina, plangintza etab.).

claramente, los siguientes aspectos:

- El objetivo y alcance de la colaboración.
- El programa de trabajo que identifique los hitos definidos y su fecha estimada de cumplimiento. Para el diseño del programa de trabajo se utilizará la guía de evaluación, realizando un diagnóstico del sistema de gestión y adaptando los módulos de la metodología PREMIE a las necesidades de cada empresa, con el objetivo de conseguir una implantación homogénea de todos los módulos.
- El presupuesto (identificando, además de los honorarios por la prestación de servicios, cualquier otro tipo de gasto facturable al cliente).
- Se definirá el equipo de trabajo, no pudiéndose sustituir el consultor homologado por ninguna otra persona que no este igualmente homologada.

### **MUTUA CONFIANZA**

- Se fomentará por parte del Cliente y del Consultor un trabajo conjunto y constructivo, de modo que ambos consigan el máximo beneficio de la relación. Para ello, trabajarán como un único equipo, aportando cada uno el conocimiento, experiencia, recursos e información necesaria para llevar a cabo el proyecto.
- La relación Cliente/Consultor estará marcada por una total transparencia en el intercambio de información:
  - El consultor garantizará que desde el inicio del proyecto los interlocutores por parte del Cliente están correctamente informados del mismo (objetivos, alcance, planificación, etc.).



- Aholkulariak, behar duen guztietan, bezeroari informazioa eskatuko dio bere zerbitzuak ondo egiteko.
- Aholkulariak proiektuaren nondik norakoaren berri emango dio bezeroari, eta zerbait oker badago jakinarazi egingo dio, PREMIEko ebaluazio eta jarraipen sistemaren bitartez.
- Aholkulariak bezeroari informazioa emango dio proiektu berdin edo antzekoetan aldi berean dituen beste bezeroei buruz, bai eta gainontzekoekiko edozein harreman motari buruz ere, bere eginkizunetan eragina izan badezake edo proiektua nolabait mugatu badezake.
- El consultor solicitará al Cliente cualquier información necesaria para prestar sus servicios.
- El consultor informará al Cliente del progreso del proyecto, así como de cualquier punto crítico que exista, a través del sistema de evaluación y seguimiento de PREMIE.
- El consultor informará al Cliente sobre sus Clientes actuales en proyectos iguales o similares, así como cualquier tipo de relación con terceros que pueda incidir en el desempeño de sus funciones y que pueda limitar algún aspecto del proyecto.

#### **OBJEKTIBOTASUNA ETA INPARTZIALITASUNA**

- Aholkulariak iritzien objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatuko du, bai eta azken produktuen kalitatea ere.
- Aholkulariak iradokizun baliagarriak egingo ditu, aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak erakutsiko ditu eta zeintzuk aukera gauzatu daitezkeen azalduko du.

#### **INPLIKAZIOA ETA KALITATEA**

- PREMIEko aholkulariak proiektuaz arduratuko dira eta behar diren baliabide guztiak jarriko dituzte egitarauaren ezarpenak arrakasta izan dezan.
- Aholkulariek, euren jardun egokiaren bitartez, ezarpenen kalitatearen etengabeko hobekuntza garatzen lagunduko dute bezeroarekin batera.
- PREMIEko aholkulariek aholku emango dute kudeaketa ereduaren moduluak ezartzeko prozesuan. Horrela, prozesuaren azkenean metodologia hori transferitu egingo da eta gero

#### **OBJETIVIDAD E IMPARCIALIDAD**

- El consultor garantiza la objetividad e independencia de opiniones, así como la calidad de los productos finales.
- El consultor dará sugerencias constructivas, exponiendo los pros y los contras de las opciones posibles y explicando cuáles de ellas son factibles.

#### **IMPLICACIÓN Y CALIDAD**

- Los consultores PREMIE se implicarán en el proyecto, poniendo todos los medios necesarios para que la implantación del programa sea exitosa.
- Los consultores contribuirán, desde sus mejores prácticas, a desarrollar, conjuntamente con el cliente, una mejora continua de la calidad de sus implantaciones.
- Los consultores PREMIE asesorarán en el proceso de implantación de los distintos módulos del Modelo de gestión de forma que tras dicha experiencia se transfiera dicha metodología para su



enpresak bere kabuz erabili ahal izango du.

- PREMIEko aholkulariek, lanak dirauen artean, enpresaren jarduna bezeroarenganantz bideratzeak, aitzindari izateak eta prozesuan langile guztiek parte hartzeak duten garrantzia behin eta berriz nabarmenduko dute.
- Behar denean, aholkulariak erraztasunak emango ditu egitarauaren formatu ofizialen ordeztzeko antzeko eginkizuna betetzen duten eta enpresen beharrezan hobeto egokitzen zaizkien beste batzuk erabiltzeko.
- Ahal dela, PREMIE kudeaketa sistema enpresak dituen gainerako sistemekin integratuko da, batez ere kalitatea, ingurumena eta laneko segurtasuna zaintzeko sistemekin, eta alferrikako bikoizketak saihestuko dira.

#### **KONFIDENTZIALTASUNA**

- Bezeroak aholkulariari ezarpena egiteko ematen dion informazioa isilpean edukiko dela eta bezeroaren baimenik gabe ez dela ezertarako erabiliko bermatuko da.

#### **BFA-KO BERRIKUNTZA ETA EKONOMI SUSTAPEN SAILARI DAGOKIONEZ:**

#### **KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA ETA EGIAZKO INFORMAZIOA**

- Ezarpen prozesuaren nondik norakoaren berri emango zaio Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari, enpresen kontrola eta jarraipena egiteko.
- Enpresak PREMIEn ezarpena bertan behera utzi behar izanez gero, horren arrazoiak jakinaraziko dira.
- PREMIEn lehenengo fasea ezarri ondoren enpresak auditoriarik eskatzen ez badu, horren arrazoiak jakinaraziko

aplicación posterior en la empresa de forma autónoma.

- Los consultores PREMIE incidirán durante todo el trabajo en la importancia de la orientación de la empresa hacia el cliente, del liderazgo, de la participación del personal en el proceso y de la mejora continua.
- Cuando así se requiera el consultor facilitará la sustitución de los formatos oficiales del programa por aquellos otros que cumplan una función equivalente y que se adapten mejor a las necesidades de las empresas.
- Se trabajará en la línea de que el sistema de gestión PREMIE quede integrado con el resto de sistemas que la empresa tenga, especialmente los relativos a Calidad, Medio Ambiente y Seguridad Laboral, huyendo de las duplicidades innecesarias.

#### **CONFIDENCIALIDAD**

- Se garantiza la confidencialidad de la información aportada por el cliente al consultor para llevar a cabo la implantación, y el no hacer uso de ella sin la correspondiente autorización del cliente.

#### **RESPECTO AL DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN Y PROMOCIÓN ECONÓMICA (DIPE) DE LA DFB:**

#### **COMUNICACIÓN EFICIENTE E INFORMACIÓN VERAZ**

- Se informará de la evolución del progreso de implantación al DIPE para control y seguimiento de las empresas.
- Se informará sobre cualquier motivo, cuando ocurra, que lleve a la empresa a interrumpir la implantación de PREMIE.
- Se informará sobre los motivos por los que las empresas no soliciten la auditoría tras la implantación de la



dira.

- Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari lagundu egingo zaio PREMIE egitarauaren aplikazioak enpresetan duen eragina ebaluatzeko behar dituen datuak biltzen.

#### **AGIRIEN AURKEZPENA**

- Aholkulariak enpresari ez dio inola ere biderik emango benetan ezarrita daukanarekin bat ez datorren dokumentazioa aurkez dezan.

#### **FUNTS PUBLIKOEN ERABILERA ERAGINKORRA**

- Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren diru-laguntza ahalik eta ezarpen osoena egiteko erabiliko da, eta lan horretarako emandako denbora aprobetxatu egingo da.
- Sailari aurkezten zaizkion fakturen zenbatekoa bat etorriko da zehatz-mehatz enpresari fakturatutako eta kobratutako zerbitzuen zenbatekoarekin.

#### **ELKARRI LAGUNTZEA**

- Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari lagundu egingo zaio PREMIE egitarauaren berri zabaltzeko eta hura ebaluatu eta hobetzeko egiten dituen ekintza guztietan.
- Enpresek edo PREMIEko aholkulariek hala eskatuz gero, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak bitartekari jardungo du jokoera kode hau behar bezala aplikatu dadin aholkua jasotzen ari diren enpresetan.

#### **KONFIDENTZIALTASUNA**

- PREMIE metodologia egitarauaren eremuan bakarrik erabili ahal izango da.

primera fase de PREMIE.

- Colaborar con el DIPE en la toma de los datos necesarios para evaluar el impacto que la aplicación del programa PREMIE tiene en las empresas.

#### **PRESENTACIÓN DE LA DOCUMENTACION**

- En ningún caso el consultor se prestará a facilitar que la empresa presente ninguna documentación que no se corresponda con lo que efectivamente está implantado en la empresa.

#### **USO EFICIENTE DE LOS FONDOS PÚBLICOS**

- Se utiliza la subvención concedida por la DIPE para realizar la implantación lo más completa posible, aprovechando el tiempo dedicado.
- El importe de las facturas presentadas en el Departamento se corresponderá con exactitud a las realmente facturadas y cobradas a la empresa.

#### **APOYO MUTUO**

- Colaborar con el DIPE en todo tipo de acciones que sirvan al propósito de difundir, evaluar y mejorar el programa PREMIE.
- El DIPE mediará, a petición de empresas o consultores PREMIE, para la correcta aplicación de este código de conducta en las empresas a las que esté asesorando.

#### **CONFIDENCIALIDAD**

- La metodología PREMIE sólo se puede utilizar dentro del ámbito de actuación



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Berrikuntza eta Ekonomi  
Sustapen Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Innovación  
y Promoción Económica

Beste eremu batean erabili nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari.

del programa. Si se quiere utilizar en otro ámbito, se debe realizar una solicitud expresa al DIPE para su autorización.

**PREMIE-KO GAINERAKO AHOLKULARIEI  
DAGOKIENEZ:**

**RESPECTO AL RESTO DE CONSULTORES  
PREMIE:**

**BIDEZKO LEHIA**

- Lehiakideen aurrean, bidezko lehiari buruzko irizpide orokorrei jarraituko zaie.

**COMPETENCIA LEAL**

- Guardar los criterios comunes de competencia leal frente a los competidores.

**INTERFERENTZIARIK EZA**

- Ez da esku hartuko PREMIEko beste aholkularien salmenta eta ezarpen prozesuetan, enpresak berak hala eskatu ezik.

**NO INTROMISIÓN**

- No interferir en el proceso de venta e implantación de otro consultor PREMIE, a no ser que la empresa en cuestión lo solicite.

RUTA: 6/11/00/2005/1